

bakeahots.org: euskal gazteek Euskadiko bake eta bizikidetzaren inguruko euren bizipen eta ikuspuntuak elkarbanatzeko komunitate ireki berria

- Berria den ekimen honek iragana, oraina edo etorkizunari buruzko hainbat disziplina artistikotan edukiak igotzeko eta komentatzeko aukera ematen du
- Martxan jartzen den lehenengo ekimena da eta gazteei zuzenduriko programa baten barruan kokatzen da, formakuntza eta topaketekin osatuko dena
- Ekimen hauek Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren arteko hitzarmenaren ondorio dira

Donostia, 2014ko irailaren 30a. Gaur **Bakeahots espazio birtuala** martxan jartzen da, **gazte guztiak** eta gazteriarekin lan egiten duten taldeek **Euskadiko bake eta bizikidetzaren inguruko euren testigantzak**, esperientziak eta ikuspuntuak hainbat **disziplina artistikotan** (arte grafikoak, ikus-entzunezkoak, pintura, eskultura, argazkilaritza eta literatura) **elkarbanatzeko tokia**. Azken hamarkadetan Giza Eskubideak zapalduak izan dira eta indarkeria politikoak banatu du gure gizartea. www.bakeahots.org web orrialdearen bitartez, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek **modu librean** bizi izan dutena **esateko** aukera izango dute. Gainera, **gaur egungo egoeraren inguruko ikuspuntuak eta etorkizunerako itxaropenak** kontatzeko tokia izango dute, indarkeria eza, gertatutakoa ez errepikatzeko eta bakearen kultura bultzatzeko helburuarekin.

Webgune berriaren asmoa gazteak **errealitatea beste egoeratik bizi izan duten pertsonen ikuspuntuak ezagutzea da**. Nola sentitu nintzen? Zer aldatu da? Zer gizarte irudikatzen dut etorkizunean? Izena ematen duten gazteek galdera mota hauei erantzuten dieten edukiak igo ahal izango dituzte. Honekin jarraituz, **edukiak sare sozialetan elkarbanatzeko eta beste pertsonen igo dutena ikusteko eta iruzkinak emateko abagunea izango dute**. Gai korapilatsua denez, bi erabaki hartu dira. Alde batetik, bai edukiak bai iruzkinak moderatzaile baten bitartez pasako dira webgunean bertan ikus daitezkeen irizpide batzuk jarraituz eta, bestalde, partehartzaileek benetakoa edo anonimoa den izena erabili ahal izango dute.

Itsaso Anduezak, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea, **“ekimen oso garrantzitsua” dela azpimarratu du “gazteoi orain arte gai hauen inguruan galdetu ez digutelako**. Badugu etorkizunaren inguruan asko esateko baina, horretarako, lehenik eta behin atzera begiratu behar dugu”. Anduezak **“EGK gai hauek lantzeko oso egokia” dela “Kontseiluko elkarten aniztasuna dela eta” nabarmendu du eta gazte guztiak “Bakeahots, formakuntza eta topaketetan parte-hartzera” gonbidatu ditu.**

Beste ekimenak: formakuntza eta topaketak

Hurrengo hilabeteetan Bake eta Biziketza arloan burutuko den programa beste bi ekintzekin osatzen da. Hasteko, **formakuntza hiru saio** antolatuko dira, bakoitza euskal hiriburu batean, gazteekin bizikidetzatza, Giza Eskubideak eta gatazken ebazpena lantzeko. **Nola sortu dut nire ikuspuntua Euskadin gertatutakoaren inguruan? Hori da gazteengan sortu nahi den hausnarketa** eta, aldi berean, errealitatea beste aldetik ikusi duten pertsonen ideiak ulertzeko bidea erakutsi eta gatazkek ebazteko indarkeria erabili gabe konpontzeko tresnak emango zaizkie.

Bigarren ekintza **hiru topaketa** izango dira, non gazteek bakea eta bizikidetzaren inguruko euren ikuspuntuak elkarbanatzeko aukera izango duten. **Bake Ibilbideak deituriko ekimen honetan, gazteak euskal hiriburuetako hainbat lekutan ibiliko dira, iragana, oraina eta etorkizunarekin lotura duten txokotan.** Ibilbideetan **pintxopotea** ere egingo da eta, giro lasai batean, partaideen elkar arteko konfiantza ahalbidetuko da.

Ekintzak doakoak dira eta garraiorako gastuak ordainduko dira. Gazteek izena eman dezakete dagoeneko bakea@egk.org helbidera email bat bidaliz edo 943-429767 telefonora deituz:

	Formakuntza	Topaketa
Bilbao	Azaroak 11, asteartea	Azaroak 14, ostirala
Vitoria-Gasteiz	Azaroak 18, asteartea	Azaroak 20, osteguna
Donostia/San Sebastián	Azaroak 25, asteartea	Azaroak 27, osteguna

Eusko Jaurlaritzaren-EGK hitzarmena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak orain aurkezten dituen proiektu hauek **Iñigo Urkullu lehendakariak eta Itsaso Andueza, EGK-ko presidentek, ekainean sinaturiko hitzarmenaren ondorio dira.** Hau dela eta, Kontseiluak *2013-2016 Bake eta Bizikidetzatza Planaren* 17. puntuan agertzen diren lau ekintza aurrera eramateko konpromisoa hartu du; “bakea sendotzeko esfortzuan gazteen protagonismoa garrantzitsua dela” da hauen helburua.

EGKren lana ekintza hauek antolatzea eta zabaltzea izango da Kontseiluko kide diren 60 elkarte baino gehiagoren artean. Hauek esparru askotan lan egiten dute (politika, enplegua, hezkuntza, berdintasun, astialdia, ea) eta euskal gazteriaren pluraltasuna eta aniztasunaren eredu dira.